

OLIO BILKETARAKO EDUKIONTZI BERRIA

Egun hauetan etxeko olio biltzeko edukiontzi berria ari gara jartzen. Asteazkenean hasi ginen, hilak 17 eta 26an bukatu ditugu lan hauek. Beraz azarora bukatu baina lehen mankomunitateko herri guztiek izango dute zerbitzu hau. Guztira 47 edukiontzi ipiniko dira. Gehienetan arropa eta pila edukiontzien aldamenean aurkituko ditugu.

Edukiontzia **sukaldeko olioarentzat da bakarrik**, olio bejetalarentzat hain zuzen ere (frijitzekoa, kontserbatakoa, etab.)

Sistema berri honekin erantzuna eman nahi da **Ajenda 21eko** foroetan agertu diren proposamenei edota mankomunitatera zuzenean deituz ailegatu zaizkigun iradokizun eta eskaerei.

Bestalde eskertu **Foru Aldundiko Garapen Jasangarriko Departamentuari** egin duen esfortzua kanpaina honetan, beraiei esker erosi ahal izan direlako edukiontzi guztiak eta egin komunikazio kanpaina.

Edukiontzi berriak orain arte hilero egiten zen azoketako bilketa zerbitzua ordezkaturiko du. Sistema hau, nahiz eta bezero taldetxo dexentea zeukan, ez zen oso eroso gehienontzat, batez ere ordutegiarengatik eta bakarrik hilean behin egiten zelako, eta gainera ez herri guztietan.

Sistema hau urteetan landu ondoren **beste aukera batzuk** aztertu ziren. Horretarako iaz 3 edukiontzi modelo desberdinak frogatu ziren mankomunitateko hainbat herrietan. Herri hauek orduz gero edukiontzi bitartez egindako bilketa izan dute eta esan behar emaitzak oso onak izan direla. Hauetako baten kasuan adibidez laukoiztu egin da bildutako kantitatea. Esan herri hauek Itsasondo, Ataun, Idiazabak, Zegama, Segura, Mutiloa eta Zerain izan direla.

Hamabi hilabeteko froga honen ondoren **emaitza hoberenak** eman dituen edukiontzia aukeratu dugu. Gainera prototipo hoberenaren bertsio hobetua izango da edukiontzi berria.

Sistema berria. Errezagoa ezin da izan. Sukaldean erabiltzen dugun olio ontzia batean gorde besterik ez da egin behar. Beteta daukaguenan gertuen

daukagun edukiontzira eraman eta bertara bota **ontzian bertan ondo itxita**. Gomendagarria da baina ez derrigorrezkoa ontzia plastikozkoa izatea puskatu ez dedin botatzerakoan.

Edukiontzia **erabat estankoa** da eta azpikalde bikoitza dauka, beraz ezinezkoa gertatzen da isuririk egotea edo zikina egotea ingurunea.

Ondoren olio hau Altsasuan dagoen planta batera eramaten da ontziak hustu eta olio iragazteko. Birziklapenerako egokitu ondoren olio garbia Berantevillan (Araba) dagoen beste planta batera eramaten da. Bionor izeneko planta honetan olio **biodiesel** bihurtzen da, bioerregai berriztagarria eta garbia, gure ibilgailuetan erabili dezakeguna.

Aipatu bezala, sistema berriak asko **hobetu** du zerbitzua eta jasotako kantitateak. Gutxienez olio bikoiztea espero dugu. Iaz adibidez mankomunitate osoan 28.000 kg. bildu ziren. Honek esan nahi du urtean herritar bakoitzeko litro erdia birziklatu zela. Datu honek esaten digu hobekuntzarako bide dextente badaukagula oraindik.

Beste aldetik poztu egin behar gara 35 m³ olio saiestu zirelako gure kolektore eta araztegietatik (oharra: desberdinak dira kiloak eta litroak olioaren dentsitatea 0,8 kg/l delako).

Azkenik aipatu edo gogoratu orain arte azoketan furgoneta bitartez ematen zen zerbitzua kendu egingo dela. Honen ordeztu gure bi garbiguneak gelditzen dira bertara eramaten ziren beste hondakinak jasotzeko, ala nola, pinturak, fluoreszenteak, erradiografiak, kotxeko-olioa, etab.

Esan baita ere aldi berean kanpaina informatibo bat egiten ari garela kartelak ipiniz etxeetako atarietan.